



## III B AKTA

**Gaia: Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzaren Txileko Santiagoko bulegoaren zerbitzura jarduteko Idazkaritza Langile/Laguntzaile Administratibo baten postua betetzeko hautaketa-prozesua.**

**Behin-betiko postuaren esleipena eta uko egitea.**

**Prozesua:**

Lau faseak amaitu ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak, 2018ko ekainaren 20ko Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako ordezkariaren Ebazpenaren bidez, ordezkari horren Txileko Santiagoko bulegorako Idazkaritza/Laguntzaile Administratibo lan-postuaren hornidurarako aukeratze-prozesu osoa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen, aipatu postua Mónica Murua Epul-i esleituz behin-behinean.

Ebazpen horren aurka egiteko 10 egun naturaleko epea ezarri zen, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ezarritako epean erreklamaziorik jaso ez delarik, 2018ko uztailaren 3ko ordezkariaren Ebazpen bidez, prozesua gainditu duten pertsonen behin-betiko zerrenda argitaratzeari ekin zaio –hautagai bakoitzari esleitu zitzaion zenbaki baten bidez, izangaien identitatea errespetatzeko– lan-postua Mónica Murua Epul-i esleituz behin-betiko. Bere izena Ebazpenean argitaratua izan da, gardentasun irizpidea beteaz beste izangaiekiko. Horretarako, postuaren esleipendunari berariazko baimena eskatu zitzaion bere izena prozesuaren Behin-Behineko Ebazpenean eta Azken Ebazpenean argitaratzeko. Aipatu baimena lortu ondoren, Mónica Murua Epul esleipendunak postuari uko egin dio, eta horregatik hautaketa-prozesua hutsik geratu da.

Aipatu Ebazpenak ez du bide administratiboa agortzen eta bere aurka interesatuek Gora Jartzeko Helegitea aurkeztu ahalko dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Txileko Santiagon, 2018ko uztailaren 3an

Rafael Manuel Kutz Garaizabal  
Epaimahaiaren burua

Leyre Madariaga Gangoiiti  
Epaimahaiaren bokala

Carolina Ávila Cruzatt  
Epaimahaiaren bokala eta idazkaria